

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 641/2024 Erabakia, azaroaren 5koa. Onespena ematea handitzeari ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatiko laguntzen deialdiaren ebazpenerako bideratutako kontsignazioa, zeina Kontseiluaren martxoaren 19ko 158/2024 Erabakiak onetsi baitzuen

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 19ko 158/2024 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta beste kudeaketa konpromiso batzuk hartzeagatiko laguntzen 2024rako deialdiari, zeinen oinarri arautzailak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 32/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitziren.

2024ko deialdia ebazteko hasierako kreditu erreserba 1.680.000,00 eurokoa izan zen, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023rako ekitaldirako gastu aurrekontuko 40101. G/414400/47900404 "Nekazaritza eta ingurumen neurriak" partidaren kontura.

Laguntza deialdiak jasotzen duenez, kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoirengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek neurri bakoitzean hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko ehunekoak izan daitezke gehienez ere.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, balorazioa egiteko kide anitzeko organoa bildu da, 10.4 artikulua arabera, eta honako hauek izango dira kideak, edo haien ordezkokoak:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua.
- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikari bat.
- Nekazaritza Zuzendaria, Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua ez badago.

Aztertutako datuak eskatutako zenbatekoei dagozkie, geroago aurkeztutako uko egiteak alde batera utzita eta aurkeztutako eskaera bakarraren egokitzapen batzuk kontuan hartuta, abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren 112. artikulua arabera, aurretiazko kontrolen, administrazio kontrolen edo monitorizazio bidezko kontrolen emaitzen ondorioz.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, eta egin ahal diren administrazio kontrol guztiak egin ondoren, honako hau da aurkeztutako eskaera guztiei erantzun ahal izateko beharrezkoa den zenbatekoa:

ESKU HARTZEA	2024AN ESKATUTAKO ZENBATEKOA
Erlezaintza	95.727,45 euro
Ekoizpen integratua VL*	61.250,00 euro
Tokiko arrazak	762.845,44 euro
Nekazaritza ekologikoa	963.559,85 euro
GUZTIRA	1.883.382,74 euro

Hasiera batean 1.680.000,00 euroko kreditua gorde zen 2024ko deialdia ebazteko, eta, beraz, proposamen horretatik ondorioztatzen da 2024ko urteko aurrekontu esleipeneko defizita 203.382,74 euro dela.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 15eko 584/2024 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko M_T02/2024/0000000028 kreditu transferentziaren espediente onetsi zen, 196.105,14 eurokoa. Hortaz, aurrekontu partidaren 7.277,60 euroko soberrako kreditua dagoenez kontsignatzeke, azkenean 40101. G/414400/47900404 "Nekazaritza eta ingurumen neurriak" partida 1.883.382,74 euroz hornitu da, eta saldo hori nahikoa da ebazpena eman ahal izateko aurkeztutako eskaeren alde.

Nahitaezko txostenak aztertu dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea 203.382,74 euroan handitzeari Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta beste kudeaketa konpromiso batzuk hartzeagatik laguntzen 2024rako deialdiaren ebazpenerako bideratutako kreditua, zeina Kontseiluaren martxoaren 19ko 158/2024 Erabakiak onetsi baitzuen. Azkenean 1.883.382,74 euroko behin betiko kreditua geratzen da.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 203.382,74 euro esleitu ditzala, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023rako ekitaldirako gastu aurrekontuko 40101. G/414400/47900404 "Nekazaritza eta ingurumen neurriak" partidaren kontura.

Hirugarrena. Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritzaren Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA